2019ko Iraila-Abendua
Septiembre-Diciembre 2019

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

# ermuantzokia



**IRAILAREN 20an SEPTIEMBRE** OPERA PROIEKZIOA / PROYECCIÓN DE ÓPERA

## Rigoletto. DE VERDI

**A las 22:15ean / Sarrera | Entrada: 8 €**

Zuzendari artistiko / Director artístic: **Phillipp Stolzl** Zuznedari musikala / Director musical: **Enrique Mazzola**
Reparto / Kantariak: **Stpehen Costello, Valdimir Stoyanov, Stawey Alleaume, Miklos Sebestyen...**



*Giuseppe Verdik bere "lanik onena" Rigoletto zela idatz izuen 1855ean. Zentsura ofizialari aurre egin behar izan zitzain hura antzezteko –zentsuratzaileek trabak jarri zizkioten Verdik erakutsitako errege ezmoral haren deskribapenari-, baina 1851ko estreinaldiaren arrakasta handiak sendetsi egin zuen. Ondorengo 10 urteetan 250 aldiz antzeztu zen Rigoletto garai guztietako operarik ezagunena delarik.*

*Opera hau Bregenz (Austria) Nazioareteko Jaialditik, munduko onenetariko bat, emango da.*

***Atsedenaldian kaba-kopa bat zerbitzatuko da, "Distribuciones Arral"ek eskainia***

Giuseppe Verdi escribió en 1855 que Rigoletto era su "mejor ópera". Hubo de hacer frente a la censura oficial para poder representarla –los censores pusieron pegas a su retrato de un soberano inmoral–, pero se vio reafirmado por el enorme éxito del estreno en 1851. Rigoletto se representó 250 veces en los diez años siguientes y se ha mantenido como una de las óperas más populares de todos los tiempos.

Esta ópera se retransmitirá desde el festival Internacional de Bregenz (Austria), uno de los más prestigiosos del mundo.

**Durante el descanso se servirá una copa de cava por gentileza de Distribuciones Arral.**

**IRAILAREN 27an SEPTIEMBRE** ANTZERKIA / TEATRO

## El enjambre. VAIVÉN

**A las 22:15ean / Sarrera / Entrada: 10€**

Egilea / Autor: **Kepa Errasti** Zuzendaria / Dirección: **Mireia Gabilondo.** Antzezleak / Intérpretes: **Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz, Naiara Arnedo e Itziar Atienza.** Iraupena / Duración: **70 min.**

*Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak, ordea, ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai… Asteburu "eroa" izan behar zuena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira…*



Un grupo de amigas de la infancia acude a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas. Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí… Lo que a priori iba a ser un fin de semana a lo loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y un enjambre. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer se comunican bailando…

URRIAREN **4**an OCTUBRE

MUSIKA-ANTZERKIA / MÚSICA-TEATRO

# The opera locos. YLLANA

**A las 22:15ean / Sarrera / Entrada: 15€**

Jatorrizko ideia / Idea originaL. **Yllana y Rami Elder** Zuzendaritza / Dirección: **Yllana** Bakarlariak / Solistas: **María Rey Joly, Mayca Teba, Toni Camas, Enrique Sánchez ramos, y Jesús García Gallera** Iraupena / Duración: **95 min.**



*Bost abeslari liriko dira The Opera Locos-en protagonistak, eta arrakasta handiko gaiak beste musika-estilo batzuekin originaltasun handiz fusionatzen dituzte ikuskizun komiko-operistiko honetan. Eszenaratze berezi, estetika zaindu eta Yllana konpainiaren komedia-kontzeptuaren bitartez, The Opera Locos-ek esperientzia berria eta ezberdina sortzen du opera esperimentatzeko orduan, freskotasun, ezohikotasun eta dibertigarritasunez hurbilduz ikusle ororengana.*

*2019an musika-ikuskizun onenari Max Saria eskuratu du.*

Cinco cantantes líricos/as son los/as protagonistas de The Opera Locos, un espectáculo cómico operístico en el que los grandes éxitos se fusionan con otros estilos musicales de la forma más original. Con una singular puesta en escena, cuidada estética y el sentido de la comedia de Yllana, The Opera locos consigue crear una experiencia nueva y diferente a la hora de experimentar la ópera y, sobre todo, acercarla a todos los públicos de una manera fresca , inusual y divertida.

Premio Max 2019 al mejor espectáculo musical.

URRIAREN **11**an OCTUBRE

KONTZERTUA / CONCIERTO

# The Travellin Brothers Big Band

**A las 22:15ean | Sarrera /Entrada: 12€**



*Talde honen curriculumak ohorezko matrikula merezi du. Datuak berez dira adierazgarriak eta zalantza gabekoak. 2003ko abenduan hasi zirenetik gaur arte biraka ibili dira etengabe nazioan, Europa osoan eta Amerikako Estatu Batuetan zehar; 2015ean Europako Banda onenari saria eskuratu zuten; ez dira falta Europako jaialdi prestigiotsuenetan; bere diskoek kritika ezinhobeak lortu dituzte eta jakina! beraien zuzeneko arrakastatsuek, egunerokoa bihurtu du "sarrerak amaituta" kartela eseki beharra. Orain Big Band batekin datoz, kontzertu hau esperientzia ahaztezina izan dadin.*

El curriculum de esta banda es de matrícula de honor. Los datos hablan por sí solos y son inapelables. Desde el inicio de su viaje en diciembre del año 2003 y hasta el día de hoy, las giras nacionales y europeas se suceden una detrás de otra, giras en USA, premios como el de mejor banda europea en 2015, la presencia continua en los más prestigiosos festivales de Europa, críticas inmejorables de sus discos y, por supuesto, el éxito de sus directos, llenos de calidad y energía, han hecho de la acción de colgar el cartel de "entradas agotadas" algo cotidiano. Ahora vienen acompañados de una Big Band para hacer de este concierto una experiencia inolvidable.

URRIAREN **18**an OCTUBRE

ANTZERKIA / TEATRO

# Los Teloneros del chocolate. LA RED TEATRO

**A las 22:15ean | Sarrera /Entrada: 8€**

Egilea / Autor: **Juanma Cano** Zuzendaritza / Dirección: **La Red Teatro** Antzezleak / Intépretes: **Maite Lorenzo, Juanma Cano, Karmele Etxebarria y Eibarko Koro Gaztea** Iraupena / Duración: **80 min.**



*Aktore eta aktoresa batek, antzerki konpainia afizionatu bateko kide bakarrak, beraien pieza txikiak entseatzen dituztela, jendearen txaloekin amets egiten dute, baina besaulki-patio bati aurre egiteko beldurrez aldi berean. Entsegu eta entsegu artean antzerkiarenganako beraien maitasuna azaltzen da, eta eszenatokietara igortzeko duten grinaren jatorria. "Los teloneros de chocolate" humore handiko musika-ariketa bat da, bai eta antzerkiarenganako maitasun-ariketa bat, eta Ermuarenganakoa ere bai. Egunotan kulturak dituen zailtasunak ageri-agerian uzten dituen ikuskizuna. Dena den, antzerkia beti garaile ateratzen da.*

Una actriz y un actor, únicos integrantes de una compañía de teatro aficionado, ensayan sus pequeñas piezas soñando con el aplauso del público y, a su vez, sufriendo el vértigo de enfrentarse a un patio de butacas. Entre ensayo y ensayo de sus textos sale a la luz su amor por el teatro y el origen de su pasión por subirse a los escenarios. 'Los teloneros del chocolate' es un ejercicio de mucho humor y de música; también de amor al teatro, e incluso de amor a Ermua. Un espectáculo que quiere poner el foco en las dificultades que sufre el desarrollo de la Cultura en unos tiempos en los que, pese a todo, el teatro siempre sale a flote.

URRIAREN **19**an OCTUBRE

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

# Blues Whale

**A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €** **Lobiano Kulturgunean**



*2012. urtean sortu zen Blues Whale. Hasiera batean, Bluesaren doinuak jendaurrera eramateko bokazioa izan zuen taldeak, Mississippi ibaiaren bokaletik Chicagoraino, Texaseko Bluesetik eta, nola ez, 60. eta 70. urteetako blues britainiarretik igaroz, estilo bakoitzari leial izanik eta bertsio sendoak eskainiz, ukitu pertsonal batekin. Testuinguru horretan kaleratu zen taldearen lehen diskoa, "Double side mojo" (2015).*

*Bide horretan eta denboraren joanean bere gai propioak landu ditu taldeak, hori bai, jatorrizko amerikar sustraiei eta generoak berezko dituen gakoei eutsita. Abesti gogoetagarriak, ahaltsuak, zirraragarriak eta jostagarriak dira, taldearen eszenaratze guztiz berritura ekarriak, eta dagoeneko oso harrera ona egin diete ikus-entzuleek eta kritikak. Eta ondorioz beste disko bat kaleratu dute, 4birds.*

Esta banda zaragozana, formada en 2012 por Pepe Vázquez (voz, guitarra eléctrica, acústica y resonadora), Roberto Artigas "Gran Bob" (armónicas, banjo y ukelele), Apolo Ruiz de la Hermosa (bajo, ukebass y violonchelo), Juan Millán (batería y washboard) en su disco debut "Double side Mojo" de 2015 frecuentaron con enorme acierto los terrenos del Blues más tradicional rindiendo tributo a grandes figuras del género y versionando de manera sobresaliente grandes clásicos.

En Four Birds, segundo trabajo de BLUESWHALE, vuelven las magníficas composiciones originales que nos alejan ostensiblemente del Blues más riguroso de doce compases y nos acercan a una producción mucha más madura y original, plagada de guiños y sabores a folk, country y demás músicas de raíz, siempre con el sello personal de una experimentada banda que lleva trabajando muchos años.

El sitio perfecto, el cruce de caminos donde confluyen unas raíces musicales que, partiendo del Blues, exploran otras muchas tradiciones de la música americana. En su forma y en su fondo resultado de la personalidad propia de músicos veteranos.

**URRIAREN 25ean OCTUBRE** **UMOREA / HUMOR**

# ¿Solo lo veo yo?. EL MONAGUILLO

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €**

Egilea / Autor: **Sergio Fernández “El Monaguillo”** Iraupena / Duración: **85 min.**

*Eszenatoki gainean 20 urte beteko ditu… eta utzi egiten diote oraindik ere! Badator berriz ere Sergio Fernández “El Monaguillo” benetan dibertigarria den ikuskizun batekin. Ikusi egin behar duzu! Bere bakarrizketarik onenak, bere hausnarketa dibertigarrien antologia eta bere haurtzaroan zeharreko ibilaldia, aztarna utzi dioten pelikulak adierazten dizkigula… Dantzatu eta kantatu egingo dugu, eta jai handia izango da… edota… neuk bakarrik ikusten al dut? El Hormiguero, Me resbala eta beste programa askotan ikusi izan duzu; orain bere ikuskizun propioan daukazu esku eskura. Magia, prestidigitazioa, hipnosia …ez du halakorik ezer egiten, baina barre bai, egingo duzu; zin egiten dizugu.*

A punto de cumplir 20 años subido a los escenarios, y le siguen dejando... ¡¡Vuelve Sergio Fernández “El Monaguillo” con un espectáculo realmente divertido. ¡No te lo puedes perder!. Sus mejores monólogos, antología de sus divertidas reflexiones, y hasta un paseo por su infancia con las películas que más le han marcado… Bailaremos, cantaremos y será una fiesta… o ¿solo lo veo yo?. Lo has visto en El Hormiguero, Me resbala y muchos programas más, ahora lo tendrás en su espectáculo y al alcance de la mano. Magia, prestidigitación, hipnosis... no hace nada de eso, pero te prometemos que te reirás



**URRIAREN 26an OCTUBRE** **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL (Euskaraz)**

# Inondik Inora. BENETAN BE

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4€**

Egile eta zuzendaria / Texto y dirección: **Patricia Urrutia** Zuzendaria / Dirección: **Jon Koldo Vázquez** Antzezleak / Intérpretes: **Patricia Urrutia, Jon Zumelaga eta Aiora Sedano.** Iraupena / Duración: **50 min. + 3 urte /años**

*Oso garrantzitsua da postari batentzat beti erne egotea, beti sasoian mantentzea. Ez da lan makala postariok egin behar duguna, etxerik etxe, kalerik kale, mendirik mendi, bide, aire eta itsaso zabaletan zehar. Beti zehatz eta zorrotz. Ezin da inondik inora paketerik zabaldu, gutunik ireki edo postalik irakurri. Inondik inora ere ez.*

*Inondik inora umorea eta poesia, musika zuzenean eta panpinak, euskara eta ingelesa uztartuz, jakinmina eta desobedientzia sustatzen dituen haurrentzako antzezlana da.*

Para un cartero es muy importante estar siempre bien atento y en forma. No es poca la labor que tenemos que hacer los/las carteros/as, de casa en casa, de calle en calle, de monte en monte, a través de caminos y grandes mares. Siempre precisos y exactos. De ningún modo puede abrirse ningún paquete, leer cata postal alguna. De ninguna manera.

Inondik inora une humor y poesía, muñecos y música en directo, el euskera y el inglés. Es una obra de teatro que impulsa curiosidad y desobediencia.



AZAROAREN 1ean NOVIEMBRE

# Nogen

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €



*Nøgenek, ez da inor epel utzi bere orain arteko ibilbide laburrean. 2016an Markel Idigorasek, Danimarkan Erasmusa egiten zegoenean, taldearen lehen melodiak eta akordeak kargatu zituen bere ukeleleaz lagunduta, Egonaldia amaitzean Markelek, erbestetasunaren malenkoniari lotutako errimen bidez, Donostiara bueltan ekarri zituen biluzteko gogo horiek (Nøgen hitzak danieraz: biluztu esan nahi du), eta laster kutsatu zituen bai Alex Irazusta gitarra-jolea, bai Ane Negueruela abeslaria. Geroago Olatz Cuevas baxuan eta Jokin Guilisagasti baterian elkartuko zitzaizkien.*

*2018aren hasieran Liv til døden (vivir hasta morir) bere lehenengo lan luzea grabatzea erabaki zuen Nøgenek. Donostiarrek ingelesa eta euskara nahasten jarraitu dute beraien pop-folk melodietan, baina benetan ere ahalegina egin dute estilo honek eman ditzakeen kolore ezberdinak miatzeko.*

*Egun Eider Sáezek, Markel Idigorasek, Alex Irazustak, Olatz Cuevasek eta Jokin Gulisagastik osatzen duten taldea hil arte bizitzera etorri da Danimarkatik Donostiara bere Live till døden lehen diskoarekin, eta Ermuko Antzokian aurkeztuko digute.*

Nøgen no ha causado indiferencia en el corto recorrido que tiene a sus espaldas. En 2016, Markel Idigoras, acompañado de su ukelele, cargó de melodías y acordes las primeras canciones del grupo, en su Erasmus en Dinamarca. Al final de la estancia, trajo de vuelta a Donostia estas ganas de desnudarse (eso significa Nøgen en danés: Desnudo) a través de las rimas unidas a la melancolía del destierro y enseguida contagió a Alex Irazusta en la guitarra y a Ane Negueruela en la voz. Más tarde se unirían Olatz Cuevas al bajo y Jokin Guilisagasti a la batería.

A comienzos de 2018, Nøgen decide grabar su primer trabajo largo, Liv til døden (vivir hasta morir) Los donostiarras han seguido mezclando el inglés y el euskara en sus melodías pop-folk, pero realmente han hecho un esfuerzo por explorar todos los colores que puede dar este estilo.

Desde Dinamarca a Donostia, el grupo conformado actualmente por Eider Saez, Markel Idigoras, Alex Irazusta, Olatz Cuevas y Jokin Guilisagasti ha venido a vivir hasta morir con su primer disco Live till døden que presentarán en el Ermua Antzokia.

# Boza! EURI ARTEAN

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Egilea eta zuzendaria / Autor y director: **Cruz Noguera** Antzezleak / Intérpretes: **Therno Diedhiou, Kepa Alesso, Nerea Larrazabal, Nagore Carrizo-Arroyo e Iker Legarda** Iraupena / Duración: **55 min.**

*Boza!" Muga zeharkatu aurreko gauean errefuxiatu talde batek egiten duen gau-bela poetikoa da. Badakite bizitza jarriko dutela arriskuan amets bat lortzearren, eta horixe da bizitzagatik egiten duten azkeneko brindisa.*

*Gau horretan "Boza!" abestuko dute, Sahara hegoaldeko askok Europako lurretara iritsi izana ospatzeko erabiltzen duten oihua.*

"¡Boza!" es la velada poética que un grupo de personas refugiadas hace la noche anterior al cruce de la frontera. Saben que están arriesgando sus vidas a costa de un sueño y éste es su último brindis por la vida.

Esta noche cantarán " Boza!", que es el grito con el que muchos/as subsaharianos/as celebran la llegada a suelo europeo.





# Bertso jaialdia

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Julio Soto eta Amets Arzallus.**
**Gai jartzailea: Maite Berriozabal** Antolatzailea: **Euskal Birusa**

*San Martín Azokaren inguruan ohitura denez lehen mailako bertsolariak izango ditugu Ermua Antzokian, hitz-jolasak egiten eta ikuskizun bikaina eskaintzeko prest.*

Como es habitual, en torno a la Feria de San Martín, un conjunto de bertsolaris de primer nivel se darán cita en el Ermua Antzokia, dispuestos/as a jugar con las palabras y ofrecernos un magnífico espectáculo.













AZAROAREN **16**an NOVIEMBRE

# Sarah Vista

A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €

Lobiano Kulturgunean





*Country & western musika generoko izar handienetako bat da Sarah Vista londrestarra.*

*Artista honen lehen abestiak plazaratu zirenetik, guztiz aztoratuta ibili da munduko rockabilly sektorea eta batez ere 50 urteetako soinu retro hauetan espezializatutako musika prentsa ingelesa kontu handiz hartu beharreko andereño honekin, eta oso handia izan da kaleratu duen lehen diskoaren aurreko ikusmina. Zalantzak oro uxatu ditu KILLING FEVER egilearen lehen lan luzeak, erakutsi beharrekoak erakutsi ditu eta, nola ez, txundituta utzi du kritikari zorrotzena. Kasu honetan ez dugu Imelda Mayren enegarren bertsioa topatzen, ez eta Peggy Leeren moldaketa klasiko modernizatua ere. Rockabilly eta country & western estilo mugatuaren baitan, aski originala da neska honek eskaintzen diguna, Almerian egindako bakeroen film horiei eta Tarantinoren B sailei darien urrina eta swing ukituak erabiltzen baititu.*

La londinense Sarah Vista es una de las grandes realidades de la música country & western femenina. Desde la aparición de sus primeras canciones, todo el sector rockabilly mundial y, sobre todo, la prensa musical inglesa especializada en estos sonidos retro 50's ha estado revolucionada con esta señorita de armas tomar y la expectación por su primera obra grande era grande. Su debut, KILLING FEVER, ha disipado todas las dudas, ha mostrado credenciales y por supuesto ha fascinado hasta el más reacio crítico . En esta ocasión no nos encontramos la enésima versión de Imelda May ni la clásica modernizada adaptación de Peggy Lee. Dentro del limitado estilo del rockabilly y country and western lo que esta chica nos depara tiene bastante originalidad a base de utilizar  aromas de esas pelis almerienses de vaqueros, serie B tarantiniana y deleites swing.

AZAROAREN **22**an NOVIEMBRE



# Festival de SANTA ZEZILIA Jaialdia.

ALBOKA MUSIKA ESKOLA & TXINDURRI TALDEA

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 3 €

*Musikaren zaindariaren omenez egin ohi den jaialdia, Alboka Musika Eskolako ikasleek eta Txindurri taldeko dantzariek eskainia.*

Tradicional festival en honor a la patrona de la música, protagonizado por el alumnado de la Escuela de Música Alboka y los/as dantzaris de Txindurri taldea,



**AZAROAREN 23an NOVIEMBRE**

**KONTZERTUA / CONCIERTO**

## Jon Braun. ANITA MARAVILLAS TEATRO

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4 €**

Zuzendaria / Dirección: **Iván Alonso** Antzezleak / Intérpretes: **Miren Larrea eta Valentina Raposo** Iraupena / Duración: **50 min. + 3** urte /años



*Indiako herrixka honetan poza da nagusi. Egun batean Jon Braun eta bere arreba aldendu egiten dira elkarrengandik. Arreba ausarta harrapatu duten arren, berak ez ditu inoiz bere neba Jon Braun eta bere jatorria ahaztuko. Egun baten indiar txikiak bere arrebaren bila joatea erabakiko du.*

*Istorio hunkigarri honek maitasunak zorigaiztoa menderatu dezakeela erakusten digu.*

En este poblado indio reina la alegría. Un día las vidas de Jon Braun y su hermana Malintxe se separan. La valiente hermana es capturada, pero ella nunca se olvidará de Jon Braun y sus orígenes. El pequeño indio decidirá ir a buscar a su hermana.

Una emocionante historia que cuenta cómo el amor puede vencer a la adversidad.

**AZAROAREN 29an NOVIEMBRE**

**ANTZERKIA / TEATRO (Euskaraz)**

## Lur. XAKE

**A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 8€**

Egilea / Autor: **Kepa Errasti** Zuzendaria / Directora: **Getari Etxegarai** Antzezleak / Intérpretes: **Erik Olaizola, Mikel Laskurain, Kepa Errasti eta Nerea Gorriti.** Iraupena / Duración: **60 min.**



*Julian jostailu denda zahar baten jabe da. Egun gutxi barru Ane, bere bilobak, sei urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio; berarentzat propio egindako panpina. Anek eta Julianek bidaia zirraragarri bat hasiko dute panpinarekin batera, desioak betetzen dituen izar majiko baten bila. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Ane eta Jon, bere aitaren, arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Azken aldian Jonek onarpen arazo bat dauka. Izan ere, Ane mutila da..*

*Lur publiko guztiontzako ikuskizuna da.*

Julián es dueño de una vieja tienda de juguetes. Dentro de muy pocos días su nieta Ane cumplirá seis años y está preparando un regalo muy especial: una muñeca hecha expresamente para ella. Ane y Julián comenzarán un emocionante viaje junto con la muñeca, en busca de una estrella mágica que cumple todos los deseos. Lo que aparentemente parece una aventura imaginativa ayudará a reconducir la relación entre Ane y su padre: Jon, pues últimamente este padece un problema de aceptación. De hecho Ane es un chico.

Lur es un espectáculo para todos los públicos.

ABENDUAREN **13**an DICIEMBRE

# Rayden

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 12€**

*Rayden David Martínez Álvarezen (1985) goitizena da. Madrildarra, artista polifazetikoa, 2001ean hasi zen rap musikan, berak eta Chakalek (lehen Lumier izenez ezaguna) osatu zuten Assamitas taldearekin.*

*2006an La Batalla de Gallos delakoan parte hartuko du Espainiako txapeldun aldarrikatuz, eta Kolonbiako nazioarteko finaleraino iritsiko da mundu-mailako txapeldun titulua lortuko duelarik.*

*Hortik aurrera bakarkako bere karrerari ekingo dio: bost disko argitaratu, kontzertu ugari mundu osoan zehar, lankidetzak nazioarte mailako musikariekin, eta MTV EMA (MTV European Music Awards) direlakoetan Alejandro Sanz, Leiva, Sweet California edo Neuman bezalako artistekin batera "Espainiako Artistarik Onena"ren nominazio garrantzitsuak lortu ditu.*

Rayden es el pseudónimo de David Martínez Álvarez (1985), madrileño artista polifacético que comienza en el rap en el año 2001, con su grupo Assamitas, formado por él, Chakal (antes conocido como Lumier) y DJ Mesh.

En 2006 participa en La Batalla de Gallos, en la que se proclama campeón de España y llega hasta la final internacional en Colombia, donde se alza con el título de campeón a nivel mundial.

A partir de ahí inicia una carrera en solitario con cinco discos publicados, infinidad de conciertos por todo el mundo, colaboraciones con músicos de talla internacional y nominaciones de la importancia de los MTV EMA (MTV European Music Awards) como "Mejor Artista Español" junto a artistas como Alejandro Sanz, Leiva, Sweet California o Neuman.





# Aurora

**A las 20:00etan Sarrera/Entrada 10€** | **Lobiano Kultur Gunean**

*Taller de Músics goi mailako Ikastetxean prestatutako kide talentudunak biltzen ditu Aurora taldeak. Pere Martinez flamenko kantari gazteak, Max Villavecchia pianistak, Javi Garrabella baxu jotzaileak eta Joan Carles Marí bateria jotzaileak osatzen dute Aurora. Dantzari Jose Manuel Álvarez lagun dutela, Manuel de Falla konpositorearen gai ezagunenetan barrena ibiliko den musika abentura berri honi ekin diote betiko soinuak gainditzen dituzten beste mintzaira batzuetara lerratzeko eta beste estetika batzuekiko fusioa esploratzeko. Cadizeko konpositorearen obrari ez ezik, Lorca, Albeniz eta Pedrell bezalako pertsonaia handiei egiten die omenaldia Aurorak. Taldeak jazzaren eta flamenkoaren lurraldeetara hurbiltzen diren konposizioak lantzen ditu, klasikotik urrunduz baina nortasunari eutsiz.*

Aurora reúne un grupo de talentos surgidos de la Escuela Superior del Taller de Músics. El joven cantaor Pere Martínez, Max Villavecchia al piano, Javi Garrabella al bajo y Joan Carles Marí a la batería. Acompañados por Jose Manuel Álvarez al baile emprenden esta nueva aventura musical que viajará por las canciones más populares del compositor Manuel de Falla para evolucionar hacia lenguajes que transgreden las sonoridades tradicionales y explorar la fusión con otras estéticas. Además de la obra del compositor de Cádiz, Aurora también homenajeará otras figuras destacadas como Lorca, Albéniz y Pedrell. La formación llevará las composiciones a un terreno cercano al jazz y al flamenco, alejándose del clásico pero conservando la identidad.





ABENDUAREN **20**an DICIEMBRE

# Romancero Gitano. NURIA ESPERT

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada:15 €

Egile / Autor: **Federico García Lorca** Zuzendaria /Director. **Lluís Pasqual** Iraupena / Duración: **60 min.**

*Romancero Gitano Federicoren lehen liburua da. Bertan aurkituko du bere poeta-izaera. Itxuraz erraza zeko poesia sakonez osaturiko poesia-liburu bat da, horrexegatik, liluratuta geratzen gara oraindik ere misterioz beteriko hitzen erakargarritasun hori entzutean. Emakumeen bitartez adierazi zituen sarri Federicok bere sentimendurik hondo-hondokoenak, eta hainbat aktoresak, beraien gorputz eta ahotsekin, bizitza eman diete emakume horiei. Josefina Artigas, Lola Membrives, Margarita Xirgu eta hainbaten argiari jarraituz, Nuria Espertek ere Federico aukeratu zuen, behin ere irudikatzeko nonbait... Eta Nuriak Federico arnastu du urte asko eta askotan, horregatik batzuetan, irakurketaren erdian, tximistargia bezalaxe, aktoresak eta poetak elkarrekin zuten zerbaiten oroigarria azaltzen da denbora eta bere arauak gainditzen dituela.*

Romancero gitano es el primer gran libro de Federico, donde él se descubre y se reconoce como poeta. Un libro de poesías, tan aparentemente fáciles, como insondables. Por eso nos quedamos aún fascinados al escuchar ese imán de las palabras que encierran el misterio. A través de las mujeres expresó Federico muchas veces sus sentimientos más profundos. Y las actrices encarnaron a esas mujeres, con sus cuerpos y sus voces. Nuria Espert es una de las actrices que desde algún sitio escogió Federico para encarnarlo una vez más, siguiendo la luz de Josefina Artigas, de Lola Membrives, de Margarita Xirgu... Y Nuria ha respirado Federico durante muchos años. Por eso a veces, como un relámpago, aparece en medio de la lectura el recuerdo de algo compartido por la actriz y el poeta más allá del tiempo y de sus normas.

# Sole Giménez. MUJERES D MÚSICA

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 12 €**

*Mujeres D Música emakumeek konposatu eta idatzitako abesti handiak biltzen dituen proiektua da, horren helburua emakumeek musikaren munduan egin duten lana ikusaraztea izanik. Horregatik disko berri eta kontzertu hauek abesti-multzo bat baino gehiago dira: musika- eta bizitza-aldarrikapen femeninoa, eta justizia egiteko dagoen beharrari erantzuten dio, musikan ere emakumea berdina dela aitortuz.*

*Mujeres D Músican ondoko emakume konpositore eta egileen abestiak entzungo ditugu: Chabuca Grande perutarra, Violeta Parra txiletarra, Consuelo Velázquez mexikarra, Totó La Momposina kolonbiarra, Eladia Blazquez argentinarra, Dona Ivone Lara brasildarra edota Cecilia eta Mari Trini espainiarrek, gaztelaniadun guztiok gure memoria kolektiboan ditugun abesti eder eta indartsuak, identifikatu eta egituratzen gaituztenak.*

*Horiez gain azken garaiko konposizioak ere badira. Hor ditugu Natalia Lafourcade mexikarra edota Rosana eta Rozalén espainiarrak, bai eta Sole Gimenez beraren abestiak ere. Bera da bere ahotsez aipaturiko abeslari guztiei bizi ematen diena, hainbat belaunaldi elkartuz.*

Mujeres D Música es un proyecto que reúne grandes canciones compuestas y escrita por mujeres con la única intención de visibilizar el trabajo de la mujer en el mundo de la música, por éste motivo este nuevo disco y estos conciertos son más que un conjunto de canciones, son una reivindicación musical, vital y femenina que responde a la necesitad real de hacer justicia y de reconocer a la mujer como igual, también en la música.

En Mujeres D Música suenan canciones de compositoras y autoras como la peruana

Chabuca Grande, la chilena Violeta Parra, la mexicana Consuelo Velázquez, la colombiana, Totó la Momposina, la argentina Eladia Blazquez, la brasileña Dona Ivone Lara o las españolas Cecilia y Mari Trini, pues han escrito canciones que por su belleza y su fuerza están en la memoria colectiva de todos los hispanohablantes y que nos identi¬fican y nos vertebran. Se suman a ellas composiciones más actuales de la mexicana Natalia Lafourcade o las españolas Rosana y Rozalén, incluso canciones de la misma Sole Giménez, que da vida a todas ellas con su voz, aunando así varias generaciones.





**ABENDUAREN 28an DICIEMBRE**

**HAURRENTZAKO ANTZERKIA / TEATRO INFANTIL. (Euskaraz)**

# Pinotxo. GLU GLU PRODUKZIOAK

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4€**

Egilea / Autor: **Galder Pérez** Zuzendaria / Dirección: **Maitane Zalduegi Viar** Antzezleak / Intérpretes: **Itxaso Quintana, Iñaki Maruri, Andrea Covadonga eta Ugaitz Alegria.** Iraupena / Duración: **60 min.**



*Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntutzat hartuta Glu-Gluk "Pinotxo" eramango du taula gainera. Pinotxo familia guztiari zuzendutako antzerkia da, dantza eta musika ardatz izango direla.*

*Komedia musikala erabiliz, atzoko, gaurko eta biharko umeen abenturak ekarriko ditugu taula gainera. Oraindik ere gaur egunerokotasuna mantentzen duen ipuina da Collodik XIX. mendean idatzitakoa, gaurko haurren irudi eta ikasgai.*

Tomando como punto de partida el cuento clásico de Carlo Collodi, Glu-Glu lleva a escena Pinocho. "Pinocho" será una función teatral para toda la familia, desde el aprendizaje a la comedia, del teatro al musical y de la danza al juego.

Llevando a escena un clásico para niñas y niños de ayer, hoy y mañana, esta comedia musical trasladará al público a situaciones en las que cualquiera puede reflejarse así como aprender. A día de hoy, el clásico de cuento del siglo XIX mantiene una vigencia absoluta que hará divertirse y reflexionar a toda la familia.

**ABENDUAREN 30ean DICIEMBRE**

# Liluraren laborategia. KULTURMAGIC

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4€**

Egilea /Autor: **Miguel Molina** Zuzendaria / Dirección: **Juanjo Otero** Magoak- antzezleak / Magos-Intérpretes: **Sun magoa, María Urcelay, Na Gomes** Iraupena / Duración: **60 min. + 4** urte / años

*Inoiz ez al duzu galdetu nork asmatzen dituen esku jokoak? Nork fabrikatzen ditu? Nork erabakitzen du jendaurrean egin daitezkeen? Zenbat truko mota daude? Nola sailkatzen dira? Beti egin dituzun galdera magiko hauen erantzunak ezagutu nahi badituzu, ezin duzu galdu Gargot Irakasle sinestezinaren laborategi-lantegira bisita gidatua. Berarekin asmakizun eta efektu berezien munduan murgilduko zara, ilusionismoaren zokoak ezagutuko dituzu.*

*Ah! Eta, gainera, magia ikuskizun itzelaz gozatu ahal izango duzu "Mago Handia"-ren eskutik, joko fabrikatu berriek funtzionatzen duten egiaztatzen duen arduraduna*

¿Te has preguntado alguna vez quien inventa los juegos manuales? ¿Quién los fabrica? ¿Quién decide si pueden exhibirse en público? ¿Cuántos tipos de trucos existen? ¿Cómo se clasifican? Si quieres conocer las respuestas a esas preguntas mágicas que siempre te has hecho, no puedes perderte la visita guiada al laboratorio-taller del increíble profesor Gargot. Con él te sumergirás en el mundo de la adivinanza y los efectos especiales, y conocerás todos los rincones del ilusionismo.

Ah! Y además podrás disfrutar de un increíble espectáculo de magia, ofrecido por Mago Handia, encargado de demostrar que los juegos recién fabricados funcionan.

**HAURRENTZAKO MAGIA-IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL DE MAGIA (Euskaraz)**



# Sarrerak | Entradas

## Sarrerak aurretik erosteko: Irailaren 11tik

**BBK-ko orotako kutxazainetan** edo **www.bbk.es**

- **Lobiano Kultur Gunean**, Goienkale 10
  Astelehentik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

## Venta anticipada de entradas: Desde el 11 de septiembre

- **En los cajeros multiservicios** de la BBK o en **www.bbk.es**
- **En Lobiano Kultur Gunea**, Goienkale 10
  De lunes a viernes de 9:00h a 21:00h

## Helbidea | Dirección

**Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700**
**www.ermua.es/ermuantzokia**
**ermuantzokia@udalermua.net**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ermuapuntocultural
ermuapuntukulturala

ermuantzokia